

Nafarroako Esaera Zaharrak. Saldias.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Saldias.

- 1535 *Arbi errea abenduko, nor bere denborako.*
- 1536 *Ageriak estali, kanpoko jendeak ikustea nai ez dena ankapean kapa estali*
Kanpokoen bat zetorreanean, ori esateko oitura omen zen.
- 1538 *Ardoaren mozkorra baño urarena txarrago.*
Onek bein ezaguera galarazten badu, gizona galdua baita, ito egiten delako noski.
- 1539 *Ari du, ari du; baño atertuko du.*
- 1540 *Asura-ko biorra eldu da, bere galgariñekin.*
Asura-mendian lañoa agertzen denean esaten da ori. Galgarin = galgo arin? egalarin?
- 1541 *"Balitz" eta "bagenduke" amalau anai omen ziren.*
- 1542 *Baztandarrak: Otzekin otz-bera, beroakin gelbera; gúaie, Martin, ire*
idiarekin Erriberan bera.
Errigonesak: Baztandarrak itz ederrak, almotea kolkoan; billa izkiok mando
orreri, zenbat ortz dituen agoan.
Baztandarra ta errigonesa, idi ta mando zarraren sal-erostean. Errigonesak deitzen dituzte Erriberakoak.
- 1543 *Bi etxetako zakurra goseak il.*
Ez batean ez bestean jatera ez ematen.
- 1544 *Bi yaien biramona, ez da guzientzat ona.*
- 1545 *Bildurtasunak gordetzen du ardantzea (mastia).*
Erderatik itzulia noski.
- 1546 *Daki(e)nak daki puzkarra burrunzi(a)n sartzen.*
- 1547 *Demonio filda alana!*
Beste alde batzutako "arrayo ori!" bezela.
- 1548 *Denda beti zorretan.*
- 1549 *Egin zuzenik al da?*
Ola galdetzen omen zuen batek.

- 1550 *Eliza beti bearretan.*
- 1551 *Emen eldu dira etxe-yaleak.*
Ori esaten omen zen neskatoa jaiotzen zenean.
- 1552 *Erregu(a)k erregu t'erdi ez du kabitzen.*
Zein bere neurrian bear dire gauzak.
- 1553 *Erre ta egosi, nai du(e)nak ikusi.*
- 1554 *Esnia abatzian, gazura arratsian.*
Gauerako gazura ona delakoz ote? edo esnea gauerako nai-ta gazura antzeko egiten dela?
- 1555 *Etxeko ipi-apa guziak kanpora ateratzen dabil beti.*
Ipi-apa = gorabarak.
- 1556 *Ez den lekutik, erregek errementari(r)ik ez.*
Ez den lekutik deus ezin atera.
- 1557 *Gaua egunduz asi dun, gure azkena urbilduz.*
Loa galtzen asi denak esana.
- 1558 *Gazta beratza, zatarrakin tapatua.*
- 1559 *Gezurra baño anka motza obe.*
- 1560 *Gizona zertako zartu? Beti gazte bear dik.*
- 1561 *Gizon alperra, beti lanak egiteko. Gizon langilleak ezin egin franko.*
- 1562 *Guazama (ugazama), infernuko zama.*
- 1563 *Guk bearrak, guk bear.*
Gerok eraman bear.
- 1564 *Gure katuak buztana luze, besteak ala dutela uste.*
- 1565 *Illunbeko lana, argitteko lotsa.*
Ilunbetan egin den gaiztakeriaz argitan lotsa. Oihenart-ek: "Ilunbeko lana, eguargiz ageri" (276).
- 1566 *Itzezko kunplimentuak, ta loiezko gaztanbera.*
- 1567 *Merezi ez dun zaldi(a)k, bi zaldale.*

- 1568** *Nolako belea, alako umea.*
Nolako gurasoak...
- 1569** *Ongi nai ta ezin.*
Gaxoak, eriak ola.
- 1570** *Otzian otz-bera, beroan gelbera, gure idi zarra, or die (doaie) erriberan bera.*
Ikus gorago Baztandarra ta Errigonesa (1452).
- 1571** *Saiatu zenak itsasoa ira(ga)n omen zun.*
- 1572** *Sasiak begi erneak ttu (ditu).*
Arantza zorrotzak, eta bearbada zelatariak izkutuan ere bai. Oihenart-ek:
"Sapar-ondok, behar-ondo" (404).
- 1573** *Zarrentzat botika onik ez.*
- 1574** *Zopa den lekuan sartu bear da kutxarea.*